
Zientzialarien deia Europako gobernuei, SARS-CoV-2aren intzidentzia txikia izan dadin

SARS-CoV-2 birusaren hedapenak dituen ondorioak aintzat hartuta, intzidentzia metatua ahalik eta txikiena izan dadin, estrategia bateratua ezartzeko eskatu die zientzialari-talde batek Europako gobernuei. [The Lancet aldizkarian argitaratu zuten eskaera](#), eta [Contain COVID-19 izeneko webgunea ere](#) sortu dute, deia zabaltzeko eta sinadura gehiago biltzeko.

Azaldu dutenez, COVID-19a ondorio lazarriak izaten ari da Europan, maila guztietan: osasunean, ekonomian eta gizartean. Alabaina, Europako herrialdeek ez dute elkarrekin erantzun, beharko litzatekeen sendotasunez. Uste dute txertoek lagunduko dutela 2021aren amaierarako birusa kontrolatzen, baina bitartean neurri zorrotzak hartu behar direlakoan daude, infekzioak ahalik eta gehien apaltzeko. Izan ere, ebidentzia zientifikoek erakutsi dute ezen, infekzio-kasuak oso gutxi direnean, heriotzak murrizteaz gain, ekonomiak ere hobera egiten duela.

Horrenbestez, Europako herrialdeek elkarrekin lan egitea eskatu dute, helburu honekin: 10 infekzio-kasu berri edo gutxiago egotea, milioi bat biztanleko eta eguneko. Herrialde batek baino gehiagok lortu izan du intzidentzia hori une batean edo bestean. Udaberrirako herrialde guztiek maila hori erdiestea izan beharko luke helburua.

Haien esanean, hori lortzeko, neurri eraginkorrak hartu behar dira berehala, elkarrekin koordinatuta. Kasuak jaitzita, egunean gutxienez 300 test egin behar dira milioi bat biztanleko, jarraipen estua egin positiboek, eta, agerraldiak sortuta-



ARG.: Pixabay.

koan, azkar eta gogor erantzun, prebalentzia berehala jaisteko.

Azpitarratu dute, gainera, garrantzitsua dela epe luzeko ikuspegi bateratua izatea, eta gizarteari ondo komunikatzea intzidentzia txikia izatearen onurak. Izan ere, neurriek arrakasta izateko, ezinbestekoa da herritarren lankidetzeta.

Dioenez, COVID-19a kontrolatzea errazagoa izango da etorkizunean. Biztanleria immunizatzeak, proba diagnostikoak egiteak eta transmisioa prebenitzeko estrategiak hobeto ulertzeak erraztu egingo dute kontrol-lan hori.

Hala, Europako gobernuei eskatzen diete helburu komunak adostu ditzatela lehenbailehen, beren ahaleginak koordinatu ditzatela eta tokiko egoerentara egokitutako estrategiak gara ditzatela, SARS-CoV-2aren intzidentzia txikia izan dadin. ●